

## **ALEGIA / Ume asko joan zen atzo arratsaldean Maite Frankoren ipuinekin gozatu eta jolastera**

ALEGIA. DV. Asmakizun batekin hasi zuen Maite Frankok atzoko ipuin kontaketa. Maite dut itsasoa, maite ditut mendiak, maite ditut hodeiak... zein da nire izena?. Eta berehala asmatu zuten umeek: Maite.Ondoren, ipuinak ondo entzuteko belarriak berotuarazi zizkien eta jarraian, Xabat izeneko mutiko baten istorioa kontatzen hasi zitzaien.

Irundarra da Maite Franko eta hiru urte daramatza ipuinak kontatzen. Hiru urte, geratu ere egin gabe, Euskal Herri osoan zehar umeei istorioak kontatzen. Etxean hartu omen zuen ipuin kontaketarako zaletasuna. Etxean ilobei ipuinak kontatzen nizkien eta orduan hasi nintzen kontu honi gustua hartzen. Gainera, gure ama ere nahiko ipuinzalea da. Etxean zazpi anai-arreba gara eta txikitatik ipuin asko kontatu izan dizkigu, azaldu zuen Maitek. Horrela, pixkanaka bere kasa mugitzen hasi zen eta ordutik gelditu ere egin gabe dabil. Datu gisa, aipatu, denbora honetan 400 emanaldi inguru egin dituela. Esan bezala, Euskal Herri osoan ibiltzen da eta aurten Huesca eta Errioxa aldera joaten hasiko omen da.

### **Emanaldien prestaketa**

Maitek faktore asko hartzen ditu kontutan ipuin kontaketa saio bat prestatzerako orduan. Lehenengo gauza haurren adina izaten da, adin horri egokitutako ipuinak aurkitu behar baitira. Adibidez, gaurko saioa 5-8 urte bitarteko haurrentzat da eta zabalxeagoak diren horrelako emanaldietarako gauza desberdinak prestatu behar dira, adin desberdin horietarako egokiak direnak.

Txiki txikientzako, 3-5 urte inguruko haurrentzako, animaliei buruzko ipuinak bilatzen ditu, horiek baitira beraiei gehien gustatzen zaizkienak. Gero 6 urtetik gorakoei, ikaragarri gustatzen zaizkie ipuin harrigarriak edo miresgarriak, sekulako balentriak gaingitu behar dituzten heroiak dituztenak. Haundiagoentzako, berriz, ohiturazko ipuinak erabiltzen ditut, ipuin ironikoak, komikoak, beldurrezkoak, satirikoak,... heldutasun puntu bat eskatzen dutenak. Maitek hori guztia sartzan du maletatxoan eta gero, duen publikoaren arabera, batetik bestera salto eginez joango da. Maiteren ustez, kontaketa baterako ipuinak laburra izan behar du, lineala, nahiko sinplea, ahal dela pertsonaia asko ez dituen eta neurri batean ahozkotasetatik gertu dagoena. Dena den, gero askotan zuk egiten duzu ahozkorako itzulpena, azkenean, bizidun bihurtu behar baituzu letra hutsa den testu hori.

### **Bakarkako ibilbidea**

Normalean, bera bakarrik ibiltzen da Maite ipuin kontaketan. Aldian behin, Aizkorri argitaletxearekin elkarlanean ere ibiltzen da, baina gehienetan bere kasa. Emanaldi horiek guztiak berriz, askotan ahoz ahokoaren bidez sortzen direla kontatu digu. Herri batera joaten zara eta ondoko herri liburutegikoa enteratzen denean, ba deitu egiten dizu. Askotan horrela gertatzen da. Maiterentzat, saio irekiek duten gauzarik zailena da ez jakitea zein izango den publikoa. Lehen esan bezala, umeen adinaren arabera antolatu behar da saioa eta nor etorriko den ez badakizu, ba ezin duzu guzti guztia aurretik prestatu. Baina beno horrek ere ematen dio ipuin kontaketari bere xarma, dudarik gabe.